



Elikadura

Laster izango dira udal hauteskundeak eta hautagaiak herrietarako programak idazten ariko dira. Gehienak eraikuntza eta hirigintza proiektuetaz ariko dira, era tradizionalean.

Gutxiago izango dira inguruko baliabideak erabiltzeaz eta bere kudeaketarako sare komunitarioak egituratzeaz ariko direnak, horiek izango dira, ordea, interesgarrienak.

Pandemiak, klimak eta azken urteotako gertakizunek ikusarazi digute gure helburu eta bizimoldea aldatzeko beharra. Pentsamendu aldaketa hori praktikan jartzeko herriek aukera ugari dute. Hortaz, elikadura mahaigaineratu beharreko gai bat da.

Gure eskualdeko elikadura politikaren azkena izan da Barakaldo eta Sestaoren artean janaria pakete handietan saltzen duen Costco multinazionala irekitzea. Horrela, aurretik genituen makrosupermerkatuekin batera, gure ingurua izango da Euskal Herrian janari prozesatu gehien kontsumitzen duen eskualdea. Hala ere, hemengo udal bakarrak ere ez du elikadurari buruz ari zeko arlorik.

Badaude, ordea, bazterrean dirauten hainbat errealtate:

Beharrezkoa da herritarrei ereite teknika biologikoak erakustea, baratzegintza balioan jartzea eta beharrei eskualdetik kolektiboki erantzuteko tresnak sortzea

-Industria-trenbide artean edo erreka zuloan, hamarkadak daramatzate, plastikozko bidoi eta txapazko txabolekin, kanpotik gurera bizitzera etorritakoek sortu zituzten baratzeek. Elikaduraren garrantzia transmititzeko beharrezkoa da jasotzea kanpoko nekazari herrietatik etorri ziren pertsonen lurrarekiko lotura eta aurretik hemen bizi zirena.

-Azken urteotan berriz baratzeen transmisioa izan da, lurrarekin lotu-



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

rarik ez duen jende gazteagoari. Beharrezkoa da herritarrei ereite teknika biologikoak erakustea, baratzegintza balioan jartzea eta beharrei (hazi, landare, tresna, jakituria) kolektiboki eskualdetik erantzun ahal izateko tresnak sortzea.

-Eskola batzuetan baratzeak jarri dira. Beharrezkoa da haien behar pedagogikoak asetzera, baratze proiektua eskolan osoki garatzea eta baratzeak dituzten eskolak saretzea.

-Eskola jantokietan, gurasoen artean gero eta zabalagoa da kimikarik gabeko hurbileko janari osasuntsua eskaintzeko nahia. Beharrezkoa da hori gauzatzeko bideak aztertu eta baliabideak jartzea.

2020ko ikerketa batek dio elikadura osasuntsuak osasungintzako gastuaren %20 aurreztuko lukeela. Europako hirietan elikagaiak bertan nola sortu aztertzen ari dira etorkizuneko kolapsoei aurre egiteko. Hemen oraindik bada lurrik, eta udalek badute aipaturiko ildoetan ekinbideak sortzeko gaitasuna. Bada garaia, beraz, elikaduraren gaiari heltzeko eta bide berriak zabaltzeko. Edo gaiari ezikusiarrena egin eta beste lau urtez multinazionalen eskuetan utziko dugu gure elikadura? ●